

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA



Ekintza honen helburua airearen kalitateari buruzko eztabaida bultzatzea da. Horretarako geletan banatuta Azpeitiko airearen kalitatea aztertuko dute ondorengo irizpideei erreparatuz:



- Zer egiten dute erakundeek Azpeitiko herriko aire kalitatea ebaluatu eta bermatzeko: zein erakundeek dute eskumena esparru honetan (zeintzuk dira beraien betebeharrak), nola egiten dira kalitate neurketak, nola jakinarazten diete emaitzak herriko biztanleei eta zein irizpideetan oinarritzen dira hobekuntza programak.

- Zer egin beharko lukete herriko eragile desberdinek (udalak, enpresek, garraio arduradunek,...) Azpeitiko airearen kalitatea bermatzeko eta hobetzeko.

- Lan-taldearen azterketa eta hausnarketaren ondorioz txosten bat sortu beharko dute power-point formatuan (Material osagarria banatuko zaie). Gela erdiak aldeko txostena egingo du eta beste erdiak kontrakoa. Txostenaren atalak honako hauek izango dira:

- Aldeko/kontrako argudioak

- Ondorioak

Amaieran adostutako ondorioak eta desadostasunak guztien artean erabakiko dituzte.

